

KIROLAREN V. SANTURTZI SARIA KIROL GALA 2022ko ABENDUA

SANTURTZIKO UDALERRIAREN KIROL-AITORTZA SARIEI BURUZKO ARAUDIA

1.- Santurtziko Udalaren xedea zera da, emaitzarik onenak eta Santurtziko edo lana Santurtzin egiten duten kirolariek eta entitateek kirolaren alde egindako lana aitortzen duten sariak ematea.

2.- Horretarako, honako modalitate hauek sarituko dira:

- **Gehien nabarmendu den gizonezko kirolariari aitortza.**
- **Gehien nabarmendu den emakumezko kirolariari aitortza.**
- **Kirol egokitan gehien nabarmendu den kirolariari aitortza.**
- **Gehien nabarmendu den kirolari beterano/masterrari aitortza.**
- **Gure udalerrian kirol-ibilbide oparoa izateagatik edo kirol-arloan laguntza edo zabalpena egiteagatik nabarmendu den pertsonari aitortza.**
- **Azken urteotan izan duen ibilbideagatik nabarmendu den klubari aitortza.**
- **Aitortza Santurtziko eskola-zentro bati, kirolean parte hartu eta hura babestu, zabaldu eta irakasteagatik.**

3.- Epaimahaia honako hauek osatuko dute:

- **Kirol zinegotziak**
- **Udaleko Kirol Zerbitzuko (Santurtzi Kirolak) 2 teknikarik, hitza bai baina boto-eskubiderik gabeak.**
- **Emakumearen arloko teknikari batek.**
- **Gizarte Ekintzako zinegotziak edo honek eskuordetutako teknikari edo espezialista batek.**
- **Kirol prentsako ordezkari batek.**
- **Santurtziko Kirol Klubetako 3 ordezkariak.**
- **Santurtziko eskola-zentroetako 2 ordezkariak.**
- **Idazkari eskuorde batek (aktak egiteko)**

Santurtzi Kirolak-en sariak banatzeko egiten duten proposamena aurkeztuko dute.

4.- Banakako saria zein klub, elkarte edo eskola-zentroei banatuko zaiena berdina izango da, honakoa hain zuzen: bereizgarri bat, non Santurtziko Udalaren logoa edo ikurra ez ezik, edizioaren urtea eta aitortzaren merituak zein diren ere agertuko diren.

5.- Sariak lau urtean behin banatuko dira, abenduan, aintzat hartuta aurreko denboraldiaren amaierara arte lortutako emaitzak.

6.- Honako hauek proposatu ahal izango dituzte aitortza-sarietarako izendapenak: herriko klub eta gainerako kirol-entitateek, kirol-erakundeak izan barik kirolari lotuta dauden beste entitate batzuek, eskola-zentroek, hedabideek, jardunean dauden kirolariek, norgehiagoka handietatik erretiratuta dauden kirolariek, guzti-guztiak herrikoak edo herriko kirolari lotuta badaude eta betiere bermatuta badago kirol-errealitatearen gaineko ezagutza dutela, Santurtzi Kirolak-ek, herriko kirol-entitateetako abonamendudunek, erabiltzaileek edo bazkideek eta udalerrian erroldatuta dagoen edozein lagunek.

7.- Gehien nabarmendu diren kirolarien, taldeen eta klubien aitortzarako ezinbestekoa izango da herriko kirolariak izatea, bertan bizitzea edo udalerriko klubetan jardutea; eta herriko klub eta eskola-zentroen kasuan, bertokoak izatea edo egoitza udalerrian izatea.

8.- Sari-banaketa egingo den tokia eta eguna hedabideei, izendapena jaso eta proposatu duten guztiei eta orokorrean, Santurtziko kirol-instalazioetako erabiltzaileei jakinaraziko zaie.

9.- V. gala 2022ko abenduaren 28an egitea aurreikusten da, SKAko 1. aretoan 20:00etan.

Santurtzin, 2022ko urriaren 18an